


EUZKEL ATALA



Ecos de Sociedad

AZPEITIPIK

GORA ASUERO
Berriz ere oju egiten det. Alperrik ibiliko da bekaitza orru ta marru. Asuero beti izango goratuba, ez bere aundi naiaz, ori ez; Asuero gan gaitz orrek ez du tokirik. Duban argitasun berezi ori, ez du berea. Jainkoak, emana du, ta berak kenduko dio, Berea, duban bexelaxe. Alperrik ibiliko dira, gora ta bera. Jakintsu guziak Asuero onari ez diote kenduko Jainkoak emanik duban doia osasuntsu ori. Berak esan du: Zuero, ori nerean dani, nai zalako Asuero.

Bejondezula dotore argial. Ezda ez Asuero itzigiten dubena, ez; orren Zuero osasuntsuak osasundurik utzi dituban mintzabak, ziranak orain dira Gora Asuero gu egiten dutenak, oiek dira. Asuero goratzen dutenak, bere egite onak, eta ez besteak, eta beste goratzen. Asuero aldurru? Milla ta milla biderrez, ez. Jainkoagan, deuka utzi Asueroak bere gogopen on guzian, ta Jainkoak argatik aibeste jaguntzen dio, Asuero'ri bere egite on orretan. Asuero ona, J. I. deizula urte askoan.

UTSEGITE BAT ZUZENDU

Nere lengoan oker zegoan "Guazen Be-goñera". Guazen Guadalupea ipifin bear zan.

URREKO ZOROA.

DEBA

ANDUTZKO GURUTZEA

Iragarri bezela jun dan igandian onetsi zan mendi ontako gurutzea.

Goizian emenok urten gendun bederatziak aldiian Itziar'era jaupa nagusirako elteko, an ikusirik "Altzeta" "Aberri" "Elorregi" ta "Adarka" eskuel-idazliak beste eskultzale askoren artian. Jaupa abestu zuten Peros'en txiki-xa esaten diobena oso ederki eskultzale talde batek eta txikitza egin zuan Tiro Aba Donostia'ko Karmeldarrak oso ederki esanaz bi gauzeta jun ginala Itziar'era; Andutz'ko gurutzakin gure zifirna aitorxera eta elizkizunakin Ama Neskutsa garbia dala sifineste degula gure asaba zarren antzera azaltzera. Oso ederki egin zan.

Jaupa ondoren poliki poliki igo gendun Andutz'ko tontorrea lagun talde aundia bilturrik bertan, Azkoiti, Ondarru, Mutriku, Zumarraga eta gaberuako erri askotatik. Onetsi zan gurutzia aixe otz eta euri apur bat zala ta. Ondoren, jaura itzaldia Aita Tiro'k! Ezin nesak unen aitzin eman, ba aif ederra zan. Inguruan gifiak eskultzale danok gogoz erantzun gifiak "Gora Jesus Eskulerriko errege!" eta "Gora Aita Santu Erromakua" diagarri.

ONDOREN "ALTZETA"-K ITZ EGIN ZEIAN

Onedoren "Altzeta"-k itz egin zeian etusko mendigoizale batzar izenian eskaturik Andutz'en ipifin zan gurutzian bere besuetan artu zezala gure Euskalerrria. (Gora Altzeta" V aiz mutilla.

ONDOREN BAZKARIA, URREITZUKO ZELAIAN,

bakotzak berak zeramana. Guk talde batek bertan egin gendun eta bai "Aberrik" makifibat egulaze jan ere! Ezta aste guzion apopillo egon baldin haliz ere.

BAZKAL ONDUAN "ADARKA"-K NAIKUA PARRE

eragif zigan eta naikua egulaze eta txuleta jan zebana "Aberrik" itzaldia egin zuan "Mutill zarren bentajak" gaitzat artuta.

GERO ERROMERUA ETA BAKOTZEA BERE ETXERA.

Jai guztia oso ederki antolatzia izan zan gure lagun Markiegi' Polentzik.

DEBAR BAT.

DONOSTIA

EUSKO ASTEA

Astearte:an Arratsaldeko estropada ondo-rean, makil lantzarik kayean.

ARRATSALDEKO 6. AN. LENGUA "SASKI-NASKI"

gaitzak, "Kursaal" antzokian.

OSTRALIEN "TXISTULARIEN EGUNA"

Goizeko 7'an kalejira. 9'an jaupa nagusia, 10'an batzarra, 12 Bulebar'en Txistularien eresi jaja.

ITIAN, BAZKARIA UDALAREN ENPARANTZAN;

6 terdiant Atoxa'ko ostiko joku zelai:an: gipuzkoar ta bizkaitar dantzariak, arda-leak ta txistulari guziak ere jaja. Amar terdiant, bigarren "Saski-naski" jaja, "Kursaal" antzokian.

LARBURBAN: GOIZKO ITAN EUSKO TA

Englandar dantzaren kale jira; 4 terdiant, Atoxa'n aizkolarien txapeltzaren amaya; palankari, pultzolari, arizultzale, Bizkoa, Lapurdi, Napar ta Gipuzkoar dantzarrakin jaja: 10'an "Orquesta Sinfonika" ta "Orfeon Vasco"-ren abes ta eresi jaja "Victoria Eugenia" antzokian.

IGANDEN 9 TERDIAN Moderno pelota

lekuan; "Joko garbi" derizatzen pelota jokaldia, ondoren puntaz, ta onen amaien ezkuz kiroltzale pelotarrik onenak.

11 TERDIAN, URUMEA PELOTA LEKUAN,

"Orfeon Vasco" ta erriko eresbatzen eres ta abes jaja.

GOYEN BEGO

Tamalez jakin degu Errotaxe Errai-min'eren eriotz izpar samia.

BATZARRA

Gaur igandegoi goizeko amaiketa, izango da sei illabeteko batzar nagusia "Centro Catolico" batzoi'an. Dei egiten zaie bazkide guztieri elteko bertara, bestela arautegiak dion zigorkada izango du.

NASTE BORRASTE

Donosti' osakuntza eginda obetoxuago arkitzen da, Agirre Ladislao.

GURE ARTIAN ARKITZEN DA ERMU'TIK

etorria Agirre Miren. Madrid'k Otaño Matilde.

ERANDIO

LANGILLEAK
Poztu ta dagoz, benetan emengo eskeldun langille guztiak, irakurri dogunian, zelan Asuko langilleak alkarturik albo erriatoko langille eskeldunekaz dauken batzarra datorren igandian illa onen 14-garrian, eura aurrerantzia inaragiteko eura gon berak da alkarri laguntzeko biak diran guzietan, ia ba eskeldun langilleak, biarri aritu biarri legez, ta biar dan legez ibilli. Gauza ondo egina ondo ikusi eo dabe bai zarrak, eta bai gaitzak bere.

GAIXORIK AURKITZEN DIRA

Geure lagun andiak diran "Amez" eta Etxebarria' Jakinda' emaztiak.

GOGORIK ESKATZEN DEUTSUGO

geure jaun, eta Jaungoikoari, albit lenen, eurenzuko osasuna, baña egin bedi bere borondatea.

PELOTA JAYA

Gaur igandeko iragarria dago, Uri onan egin alaitu bat, ontoleturik, bakzuna dan Bizkai Pelota'ko Batzordeak". Orain aldi gutxi dala Gipuzkoarrak ospatu zuten Getari'n, eta bizkaitarrak, ospatu zuten gure txoko onen' n; gu emen gauden gure besuak zabal-zabal ditugula, auzotik datorren guzia ondo artu eta besaritzeko, au zer dogulako Ermarroak; begitu zergaitik, Bizkai laterki guzian bakiu dagozana, erri txoko mordia eta cenen gañez gure txokotxo-au artu daukue egun eder bat igarotzeko, jai pilla ederra imini ere bai, ara zertzuk eukioko ditugun. Pelota partidu eder bi goiz, eta arratsalde goizian izango dira Gurrutxaga eta Arriola, aurka Egia eta Aretio.

ARRATSALDIAN

Kanales eta Orozko Bizkai'ko txapeldunak, aurka dituela Eusko-Odola eta Txindurriri, erriarrak.

ARRATSALDIAN EUNIKO DITUGU

tanbolin ederra, eresbatza, txokar batzia, pixu jaurzia, aizkolariak, eta partidua eta gero amaizerako illuntzira arte, Eusko-erromerua.

AUZO URIETATIK ZATOZAN

guziori, artu bei neure zorion ongi etorria; eta batez be zuri "Elkor" eskuel-idazle jatorrari eskier nago etorriko zariana, anke luzetzen ez-paldin bozuz. Gero artu danori.

ASI DIRA

Garaya benetan izan dan eta oneri be etorri jako, ospatu dan artian asi dirade berriz, oraingun bukatutzeko asmoz difardube Aranzagantik-Ermu'rako bidetzabala, askok esan daben itza da au, ordua da. La bada ikusten dogu amaizua.

ERRIKO JAYAK

Beti lez badatoz uri ontako jakak Deun Jagoba egunak, ondik Udalez ez du iragari zertzeladari, baña lez zuden dodane, pelota toliak ardura artzako badabiz batzuk, zote dakorkigu Atano? jakitun nago nola Deun Jagoba egunian daukagula partidu eder bat, neuk bai derixot notitza ekarteko modukua dala egin ortarako daugun partiduakin, bada auxe da: Zabala Elgoibartarra; aurka dabela Mallabiki Txikia; biok mano-mano, eta orrez gañera yokatuten dabie txindi zati bat.

BATZORDEARI

Urtean beif izaten ditugu errian jakak eta sayatu zaitez, partidu eder batzuk imntzen zelako alakutin baño, obeto urtego doze. Zuek dotu izta.

ERMU-ZALE.

GETXO-NEGURI

ERROTAETXE ERRAMUN JAUNA
Tamaldurik itxi gaitu eskusat zintzo, kistar ta abertzale ona ixan dan onen eriotzeak. Badoaz astiro astiro geure artetik aberriaren semerik bikainenak. Ondiño gazte ixan da, ta gauza onuratu asko egiteko sasoyan egonda. Baña Jaunak gura ixan dan aberri oboagora eroan ta Bere gurarija beti ixan bedi onetziya. Arana-Goiri, Eleizalde, Kirikiño, Errotaxe abar ta abar, an daukaguz, ta egin-go dabe andik geure aberri gaioxaren alde lan onuratsua aibeste maite ixan daben lez ludijan zertuan be gogoan izango dabe. Orregaitik ba, itzaroten dogu Jaunak emengo dauskuzala seme zintzo ta argiak, jarraituteko onenik itxi daben bidetik.

Goyan bego Errotaxe' Erramun jauna,

ta bere sendi gurtzitari laguntzen dauste guz atsekabian. Irakurleari otoiiz bero bat, eskusat zintzo onen alde.

ETORRI DA

Sebilla'tik etorta geure artean dago Zabala' Joseba adiskide maite ta eskultzale zintzoa. Ondo etorrija ixan zaite Joseba zeure erri kutunera.

JAIKAK

Erri auzo onetako zaindarija da Deun Ifiaki, ta ori dala ta, emen egun orretan ixaten dira jaiak. Zelako jaiak izango diran etzalkigu, baña beste urteetan zer ikusi giti eukiten dabela bai. Ona ixango litzake geure udalez zoezer egingo balue, eskutat jaurian alde, ekarriaguz ezpata dantzari aldraren bat, baña aurrezku'ari txapelketa bat, pelota jokoa estropadak, abar ta abar, guza politak oso, ta txindi gixtaguz egin leizanak. Abesbatz ba be ekar lei Deun Ifiaki zelan emen daiztan abestaldi batzuk. Bilbo'n daukaguz "Schola-Cantorum", "Sociedad Coral", "Grupo Coral del Ensanche" abar ta abar, oso ederto abestuten dabanak, ta pozik etorko litzakezanak. Zoezer egin bear da, jaiari indar apur bat emoteko. Urtean bein baño ezta izaten, ta erriari emon bear yako zoezer.

IZKIZUNAK

Beti lez Deun Ifiaki eleizan deun onen seunian izango dira elizkizun-ederrak. Ba-

dabiltez geure gazteak gertuten "Ravanello"-ren

jaupen gure orretan abestuteko eleizan. Ederto egingo dabelako uste dot, ze mutli onak fira onenik ba, ondo ez abestuteko. Azkenian Deun Ifiaki'ren abestia euskeraz beste urteetan lez abestu gero.

Baita eresbatzen zuzendari jaunari

be ortxu bat, ori da, Deun Ifiaki eguneko eresjotaldijak, goixekuk beintzat, Deun Ifiaki zelan egiten diranak, ixan daitezala eskeldunak, ze igez esan olan ixan, sartu zendubazalako azkenian or Sebilla aldeko "pasodoble" batzuk. Goraldu daugun geure abenda, urtean bein baño ezpada be, beti egin bear geunkena, urtean bein egitea ezta gauza askorik ez urrik emon be ta.

ALANGOKO BAT.

LEXONA

Erabagi biarrekoa. Igaro dan astein irakurri dot izparringio onetan zelan Bizkaiko jaurriarik bialdu daben agindu bat, oraingo gaze azkon ekanduan aurka; eta jazozen dana da, artuten daukiez baserri-tarrari jantziaz eta urtetan daudie erromerri batera edo ondartzta batera, eta bertan egiten dituzte ifion diren gauzerik txiki-kiak geuziek izketan, bada edo beste geure baserriar maitagarriak ekandu iri barreka au izanik eurok jolasutako era. Etti tamalgaria bada eskeldunen odolik ezantkon batek etia au izer izango da eskeldun batek etia? irakurleak! onelango gauzak eiten dabilen eskeldunak, edo eztaiki zer eiten daben edo ezteuko eskaldun odolik.

ARPIDEAK

Enbeitza aldeko arpideak erri onetan ez deuko igokera andirik baña beste bien ixan abixenak eman bijar dotz eta onek dira: Elorriaga Jagoba, 2 laurleko; An-dres Jon, 2 laurleko.

Emoteko usterik deukiak eta batez

bere ortziak artu. dagozanari, eskatzen deutzat bijaldu deiezala utzik edo berik ze itzaroten nago eruateko Batzordeari Bilbo'ra eta ezdakit naidaben edo emon zer Kirikiño sarirako bere beste au legez gagoz baño onetarako ezta gon legez erri onetan eskultzalerik eta bai ostiko-lariak uste dot obeto izango dala geiogo itzaroten barik izitea arpidea eta orretarako emengo dotaz emon dabanen ixen abixenak, zeintzuk diran.

Bartzena' Jon, 2 laurleko; Bartzena'

Kepa, 2; Uriarte, 2; Mendietak' Jon, 2; Lliona Koldobika, 1; Bezeza, 2. Guztira, 11 laurleko.

MENDIRA

Illa onen ogeta bozten Deun Jagoba egunian deuko gogo juateko Orduñako Mendira an eguna igarotera eta onegaitik esango dot zoezer urregioan.

BESTEA.

MAÑARI

—Emen aldi luze bat igarota Santurze'ra yuan zan Amesti' Imanole andrea.

—Sukarrieta'ra yuan ziran Usola' Martiñe ta Lete' Miren Gentzane neskatilla.

—Berriz'era Gorrotxategi' Martin, Ortuoste' Bitor eta Kapanaga' Sabin.

—Elorri'ra Iturriaga' Piliña bere tobatuak.

—Ereñ'etik etorri zan Elordieta' Miren.

—Domeka agurtu genduzan emen Otzandio'ko Uriarte' Erroman eta Elgea' Bernabe.

—Gernika'tik etorri ziran Rui-Wamba' Pillomen eta bere alaba Jayone' neskatilla.

GEURE ATSEKABE-IKURRA

Barikuan izparringio au eskuratuiaz batera erakurri gendun Errotaxe' Erramun Miren yaunaren eriotz-izparra; oso tamal andiya artu gendun, eta beriala geure otoi apalak Goiko Yaun onagan zuzendu ziran Errotaxe' Erramun kistar zintzo ta euzkeldun ona zanare gogo-aldez. G. B.

Euren atsekabe sakemian laguntzen dauzela bere emazte Izard' Elise andrea' ta seme-alabari.

EGURALDIYA

Eguzki argi ta ego-aize epelaz oso zargori. Lengo goiz-illuntzi batzuetan ifuntza be polito yaunten izan da; baña egunokaz ego-aizak ifuntz ori atzeratu dau.

Erri-onetan, egualdi bero ta sargori onen artiak ondo ta erraz artzeko leku egokiyak dagoz; batez be, atx eta mendoiyatan dagozan zuzat arteko landa ederretan, ba eurentan ederto ta atsegiñez igaroten da udako aldiye, naiz ta berorik aidiyena egon.

Egualdi onek dirala bide, aste onetan gari asko ebagi da, ta onan yurrai bada laster dira gari gustiyak metatu.

Lengo asteko euri ederraren astian, ortuetan porru, aza ta loraz landara asko ipini da; orain goizetiko lusagarria ataretan oiardue. Ederra ta nauke ugari dago.

Baita ider, aza, leka ta enparau ortuari guztiyak be, Yaunari eskerrak ugari dagoz.

KALERA BIZITEN

"Bazeta" etxaguntza edertetik, kaleko "Aranjiz" derixoten etxera etorri da biziten Amantegi' Yon gizon euzkeltzalia bere emazte ta sendiyaz. Ondo bizi.

MUGARRA'RA

Lengo domekan uste zan lez, emendik gente asko yuan zan Mugarra'ko landa ederrera. Yuan ziranak difiue oso yai polita izan zala ta ondo eraldurikua.

Egualdi otz eta bada-epadakua zalako alako getetzadi-andi-ardik ez eizan batu; baña yuan ziranak geñeyez, gazte alai ta patxara onetuak ei ziran, eta orregaitik egun on eta eder bat igaro eiyeben.

GEIXORIK

Alan dago Garitonandia' Peliziana andrea. Arin osatu.

"ERUEN-ALA ARRI"

Lengo egun baten, mutli batek emengo aguretxo bati onan ifiotzun.

—Zu, urliye neskatilla berendiye mutli-laz ezkontzen edite, ta difiue suberte andiye eiten dabela; biden artien sei etxe ei daukiez eta ganera difue be sendo, ta danak abo batez difiue, ezkontzen badie sekuluko edertuten biziko dirala.

Au entzunda, aguretxuak esautson barreka.

—A mutli, orrek gauzok olan izango dozak, baña... orientzat be eztoz paltako eruen-ala arri", danoentzat yauk eta "Erueñ-ala arri", esakun polit au oso zarrak izan biar dau, ta berau emengo zarrak sarri erabilli oi dabe adierazeteko lud' onetan gazoan artian txiro naiz abertat danok izango dogula zer yasas; eta eten barik yatorkuzan neke, samintasan eta

rako otorontz (edo banquet) on batera,

eta bera bukaturik eskerrak emanaz Oñatiko erriari jun zan Gaiteiz'era.

Zorionak gotzai jauna erri onetan utzi dituzun oroipenak gatik ta batez ere sendetzi zituan ume ta beren amagandik, ain onginai ta maitekor eroapan aundiagaz denak artu zitalako. Agur bada eta nai duan arte Gotzai jauna.

YATURABE.

ZEANURI

Errotaxe' Erramun jauna il da. Egueñian gabean urrutizkinitik izpar tamalgaria eldu yakun, Arenetatik erri onetara, da euron Zubiate'ko jaurjira.

Aspaldi onetan gexorik egin izan da da asko igaro izan dau gexaldian gixaxoak. Egureno izparrak yakun izan dira bein zoezertxo oboetago, da beste bein txarrago olan yarratu dau Lourde'ko bidezkuetan berrataruteko ustez urten eban eztezan da Donostian ezin yarraituta ixeko-osaban etzean egun batzuk igaro ebazan oso txarot.

Da andik egun batzuk bere etzera Arenetara bilbelian eroan eben.

Errotaxe' Erramun gizon onbidetzu, bere sendi guztiak, uzkutz gayetan sakona. Euskal-erriaren maitatzale benetako, geure euskera maite ebana, gizon zuzena, biotz andiduna. Elizaloe, Kirikiño ta letxe.

Erri onetan oso maite izan dogu erriko guztiak goikoak da bekoak, txiroak da euzkeltzale dantzetaz abegi oneko gizona izanda da alan izango zan beste toki guzti-etan bera ezagutu dabanek ezan leiken lez.

Bere bizi-bide injenierutzan toki goren-gon egonda; baña geure euskal-erri oneri yagoko zan gauzetan ifoz nekatu barik ke-mentsu yarratu dotzo bere mallako gizon-ikusten ezitan lez aldi onetan.

Sasorik onenian 43 urteaz. Goiko Jaunak bere ondora eroan dauku biziyez oboagora. Atekekaban laguntzen dauste guz bere sendi entzutez orri. Da otoi egin dagoen, arren gogoren alde guztiok.

EGURALDI BEROAK

Oso beroak egiten dituzte, egunotan bera gaurtzekoak 48 graduraño igon dau eguzki-ken.

GARI EBATEAK

Solotian garie ebaten lagun asko ikusten da, da ederrak dagozala aurtin difiude. Tira ba...

AZTERKETAK

Ipiñe'ko da Uribe ta Azterriko auzune ikastolekako azterketak izan dira egin otan.

IZPAR BALTA

Erri onetan izan lengo aldiian Sagarna' Bruno (G. B.) emengo Altzeta'ko auzuneko. Lagun deusegu atsekabian geure aikide on Sagarna' Alejandro jaupari jaunari da beste sendi guztiari.

MENDIETAN

Asko dira aurtin gibel-urdin de urretz da enpadu perretxiko atzean dabilzazana. Igazko lorgeazag eztan egin gauza andirik, baña aurtin ugari yaten da yaki au etzeetan.

BASERRITAR BAT.

GOBIERNO CIVIL

La diaria jornada

Ayer mañana visitaron al gobernador don José Arrotegui; don Paulino Gómez, con una Comisión de fegoneros habilitados; el apoderado del conde de Abisolo; don Bernardo Calvet, inspector general del Cuerpo de Ingenieros de Caminos, quien ha venido a la villa para asuntos oficiales. El señor Calvet trajo un saludo afectuoso del director general de Obras Públicas, señor Gelabert, para el señor Ballarín.

El gobernador recibió también un oficio del presidente del Colegio de Veterinarios de Vizcaya, en el que da cuenta de un acuerdo reciente tomado por la Junta directiva de expresar el agradecimiento al señor Ballarín por el interés en favor de los veterinarios y por la justicia con que fueron resueltos asuntos que afectaban a esta clase.

Por infringir las disposiciones sobre circulación de perros vagabundos han sido multados con cincuenta pesetas los vecinos de Ondarroa Miguel Eguía, Manuel Pérez, José María Echaburu y José María Goitia y el de Mungua Angel Goitia.

Imposible publicar la lista completa de los que se congregaron al lado de los restos del respetado y querido amigo. Solo recordamos haber visto entre ellos a don José María de Belausteguigoitia, don Jesús Cortina, don Horacio y don Rafael de Echevarrieta, don Pablo de Azkue, don Alejandro de la Sota, don José María y don Pedro Chalbaut, don Rafael Ferrer, don Juan Elorduy, señor conde de Villalonga, señor conde de Superunda, don Julián de Arrien, don Federico de Uribe, don Pablo de Ortueta, don Manuel Icaza, don Ramiro Marco Gardoqui, don Manuel Chalbaut, don Nicolás Cortés, don Rafael Villalonga, don José María Yermo, nuestro director, don Pantaleón R. Oñoro, don Justo de Goiri, don Roberto Dáñez, don Jesús de Aróstegui, don Felipe de Urrutia, don Florentino Icaza, don Enrique Larrude, don Hermilio Gana, don Martín Gartzel, don Tomás Barredo, don Pedro y don José María Chalbaut, don Jesús María de Leizola, don Gabriel Guinea, don Carlos Solano, don Guillermo Wackoning, don Gorgonio de Rentería, don José de Urresti, don Ramón de Azcue, don Ricardo de Arana, don Luis Barredo, don Ricardo Gondra, don Ladislao Perea, don Casimiro Zunuzunegi, don Francisco Ormaeche, don Ramón Smith, don Rodrigo de Olaso, don Baltasar Amézola, don Joaquín Icaza, don Juan Irigoien, don José Orús, don Pablo Goicuria, señores López Chico, Verafajardo, Arañace, Ibarra, Aguilarr, Landeche, Mendialdua, Obieta, Pradera, Lazteg